

ZANGA, AREKA ETA KAUKATAK ZABALTZEKO OBRA UZENTZIAK EMOTEARI BURUZKO UDAL ARAUDIA

ARRAZOIEN AZALPENA

Elektroindar edo telefonoak izan leikezan, herri izaerako zerbitzuak emoten dabezan Enpresen aldetik, instalazioen hobekuntzarako. hausketak eta beste honelako obrak egiteko, euren lurpeko instalazioetan, lizentziak eskatzea, nahiko ohizkoa gertatzen danez, lan horreek burutzeko, zanga, arika eta kalikatak igiri behar izaten diralarik.

Zerbitzu horeen izaera publikoa kontutan izanda, Udalak, erraztasunik handienak emon jauz, lizentzi horreek emoteko orduan, ea baita ahal dan kontu guztia izan dau, ere, obren amaiera zuzena eta egokia bermatzeko kasu bakoitzean jarri beharreko baldintzak, lan horrek, lurzoru publikoak egiten dirala, kontutan izanda.

Hala ere, sarritan, ezin izan da, nahi izandako ondorenak lortu, hau da, obrak hasi aurretik izan diran baldintza bardenetan zorua iztea, obrak txarto amaitu ondoren, Enpresek nekez onartzen dabelako, Udalak agindutako beteteko aldakuntzak egin beharra.

Araudi honen bidez, obrak zuzen amaitzea, bermatu nahi da, Enpresei, Bermea eskatu, lizentzia eskatzen daben une berean ordaindu beharko dabelarik.

Bestalde, Araudiak, kalea askatu, konpondu edo zorua jarri behar dauanean Udalak, honek, aurretiz, beste Enpresa batzuk dabezan instalazioen barri izan daiala, arautuko da, bata, zer eragin izan daikien, eta baita, ziurtasun arrazoiekaitik, eta inori ez ezeri kalterik ez egiteko behar diran neurriak hartu ahal izateko.

Enpresak, premiatasunez konpondu behar dauzanean hausketak, obra hori, ere, ondo amaitzeko, bide erraz eta soil bat jartzen da.

Bermeak, Araudi honek daukazan helburuak beteteko bide on bat izan arren, itzulketa, tramite labur eta erraz baten ondorioz egingo da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharrik barik, tramite hori, Estatutko Kontratuen Legeak ezarritako errejimenari lotutako obretan egin bete behar danez, ez, ordea, Araudi honen barrukoetan.

ZANGA, AREKA ETA KALIKATAK ZABALTZEKO OBRA LIZENTZIAK EMOTEARI BURUZKO UDAI ARAUDIA

1.artíkulu. Lizentziak emoteko errejimena

Arautegi honen helburua, kaleetako lurpean jarri beharreko edozein zerbitzu publiko edo ta, indar hornikuntza hodiak jarri, kendu, konpondu, etab. egin ahal izateko, zanga eta kalikatak zabaldu ahal izateko lizentzia emotea arautzea da.

Arautegi honetatik kanpo geratzen dira, Udalak egiten dauzan obra guztiak, bai zuzenean, bere langilegoaren bidez, eta baita, obrak adjudikatu jakozan enpresak eginik.

2. artikulua. Lizentzia lortu beharra

Aurreko artikuloren lehen atalean azaltzen diran obra guztiek beharko dabe udal lizentzia, indarreko legediaren arabera tramitaturik.

3. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Lizentzia eskaria egiteko, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Alkateari zuzendutako eskaria.

b) Gitxienez, ondorengo agiriak izango dauzan Egitasmo Teknikoa:

- Egin nahi dan instalazio edo lanaren txosten zehaztua eta adierazgarria, hartu beharreko ziurtasun neurri guztiak zehazturik. Obraren iraupena ere, azalduko da.

- Zehaztutako aurrekontua.

- Kokapen planoak, zangaren luzera garapena argi erakutsirik.

- Zangaren, altxatu, oin, eta sekzio planoak, jarri nahi dan han edo linearen zehaztasunak emonaz.

c) Udal Teknikariak, kasu bakoitzerako ezarriko dauan kopurudun bermea.

Egitasmoa, erdi mailako teknikariak izenpetuta egongo da, obraren ezaugarriek horrela eskatu ezker, goi mailako Teknikariak izenpetu beharko daualarik.

4. artikulua. Enpresek Udalari jakinaraztea

1. Udalak, kale bateko zorua altxatzea edo askatzea erabakitzen dauan bakoitzean, konponketaren bat egiteko, telefono, elektroindar edo gasa emoten daben enpresei adieraziko deutse, hamabost eguneko epe barruan, agertu daien, idatziz:

a) Kale horren azpitik, zein leku zehaztetik doazen zerbitzu horreei jagokezan hodi edo hariak, batez ere, obran parte hartzen daben lanarientzat arriskua suposatzen daben elektrikoak, bereziki.

b) Udalak askatu nahi dauzan kale edo tokietan lineak edo hodiak, hobetu, aldatu edo jartzeko asmorik badabez, Enpresa horreek.

2. Aurreko zenbakian ezarritako epea igaro ondoren, Enpresaren aldetik inolako erantzunik izan ez bada, Udalak, ulertuko dau:

a) Kale horrean, ez dagoala, bere ardurapeko instalaziorik.

b) Artikulo honetako 1.b) atalean ezarritako obrarik egiteko asmorik ez daukala.

3. Aurreko zenbakiaren bestelakoa gertatu ezker:

a) Enpresak, izan leikezan erantzunkizunen ardura hartuko dau, artikulo honetako 1.a) ataleko kasuren bat gertatu ezker, inon edo zerbaiti kalteren bat gertaturik.

b) Bost urteko epean, Enpresa horrek, liena edo hodian konponketa obrak bakarrik egin daikez, kale horretan, ez ordea, hobekuntza edo jartze barriren lanik.

5. artikulua. Enpresako teknikaria obran egotea

1. 4n. artikuluan azaltzen dan komunikaziorik ez balego, eta Udalak obrak egiteko unean, 1. artikuloko instalazioak ikutzen dauzala ikusi ezker, Enpresako Teknikaria aurkeztea, eskatuko da, bere aginduak kontutan izanik, instalazioa jagon ahal izateko, eta obrak ondo egiteko beharrezko ziurtasun neurriak hartu.

Horrek eragindako gastu guztiak, Enpresaren kontura joango dira.

2.. Bardin gertatuko da, 4n. artikulok agertzen dauan aurretizko oharpena balego ere. Kasu honetan, Enpresako Teknikaria egon beharko da, obrak hasten diranean.

6. artikulua. Lurzorua lehengotan iztea

Obrak amaitu ondoren, lurzorua,lehengotan itzi beharko da, baita, udal zerbitzuei jagoezan instalazio guztiak ere, hasi orduko egon diran baldintza bardinetan itzirik, eukezan materiale bardin eta kalitate eta ezaugarri berekoak erabilirik.

Aurrean ezarritakoa zuzen eroateko, 3.c) artikulok ezarritako Bermeaz bermatuko da.

7. artikulua. Obren amaiera eta harketa

Obrak amaitu ondoren, Enpresak, Udalaren jakintasunean jarri beharko dau, Udal Teknikariak ikuskaturik Udalak hartu daian, horretarako Alkatetzeak agindutako dekretu bidez.

Hartu ondoren, tramite gehiago barik, itzuliko da, Ber ema.

8. artikulua. Lurzorua era desegokian amaitu ezker

Ikuskatu ondoren, Udal teknikariak, akatsen bat ikusiko baleu, Enpresaren jakintasunean jarriko litzateke, lehen finkatutako epe barruan konpondu daian.

Horrela egin ezik, Udalak, jarritako Bermea hartuko leuke, bere kontura konpondurik. Bermeo baino handiagoa balitz, konponketa horren kopürua, Udalak, alde hori hartu ahal izateko, beharrezkoak lirateken ekintza administratibo eta judizialak eroango leukez aurrera.

9. artikulua. Larrialdiak

Udal Teknikariaren eritziaz, larrialdi kasua gertatzen danean, Alkatetzeak, haren proposamenez, zulo eta zangak egiteko jagokan lizentzia emongo dau.

Kasu honeetan, premiatasun hori egiaztatu beharko da, obraren aurrekontu osoa zehaztuz. Enpresak, zehazki hartuko dau, Udal Teknikariak emondako aginduen arabera, zorua lehengotan izteko konpromezua. Lanak, astebete baino gehiago iraungo dauala uste izan ezker, obretan zehar, Egitasmo Teknikoa eta Bermea aurkeztu beharko dira, Araudi honetako 3n. artikulok ezarritakoaren arabera.

AZKEN XEDEA

Araudi honetan agertzen ez dan guztirako, kasu bakoitzerako, alkatetzeak erabakitzen dauanera egongo da.